

# ZAR

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

122n. Zenbakia

Dagonilla  
Iraila  
1988



**ONAINDIA'tar ALBERTO  
(AITA OLASO)  
(G.B.)**

- Abade euskalduna
- Izlari trebea
- Gudaldian bake-gizona
- Erri-laguntzaillea

## OIZ-MENDI, BIZKAI'KO IKUSPEGIA

Mendi ikusgarririk asko dira Bizkaia'n eta zetan esan be ez Euskadi guztian, asko ta asko polit-politak diralako edo, zerbait ezaugarri dabelako. Eta, beste ainbat, mendi orreik daben ikuskizunakaitik eta, beste banaka bat, ikuspagi zoragarriak diralako.

Onetariko bat dogu Bizkai'ko Oiz-mendi, bere 1.026 neurkin goitik dituala, benetan, Bizkai'ko ikuspegi bat dalako, bere gaillurretik gure erki guztia eta Euzkadi'ren zati aundi bat ederto ikusten dalako.

Ezetariko ezpai barik, gure irakurlerik geienak dakie zein alderditan tinkaturik aurkitzen dan Oiz-mendi, edozein lekutatik ikusiten dalako bera, baiña, ondo izango da zeintzuk erriak ingurututa aurkitzen dan, batez be mendi orretara zuzendu nai dabenantzat. Ipar-aldean, Arbaizegi ta lurraldeak. Sorkalde'tik Ziortza-Bolibar'ekoak. Ego-aldetik, Mallabi (urruntxu), Zengoitza-gana ta Berriz eta Garai. Eta Sarkalde'tik Ibarri'ko maume edo Maguna eta berago Orobio'ko auzuneak.

\* \* \*

Lenago, mendi orretara igoteko, bultziz joianarentzat beintzat, Olakueta-Berriz eta Zugaztegieta izaten ziran. Geroago berebillez, Muniketa-gaiñetik Maume'ra eta, bertatik gora gaillurrera.

Edo bai-ta Garai'tik edo, Zengoitza-ganetik, baiña, gaur-egun Garai'tik goiko gaillurrerarte igon leike berebillez, nai dauanak, naita guk geien berebillez igon doguna Kistobal deunaren basatxonura arte izan. Basatxonu edo ermita ori, Kistobal deuna, ea zortzireun neurkin goitik aurkitzen da, bedar-landa eder baten.

\* \* \*

Aldi onetan, beste mendi asko lez, Oiz-mendi be gora arte, lerdie edo piñu baltzez eztalduta aurkitzen da eta, orixegaitik, lenago baiño askotzaz abere gitxiago dabil beratan eta, orrek kentzen dautsoz mendiari aberastazuna eta alaitasuna, be.

Orain berrogei ta bosten bat urte dira nik lenengoz Oiz orretara igon nebala. Ondo gogoratzen naz. Zornotza'n bultzirik jatzi ta, bertatik Etxano barrenetik Muniketa gaiñera eta, emendik Maiñu'ra eta bertatik gora Oiz-ganera. Iru ordu ondo ibilli ta.

Ordurik ona ainbat bider egonak gera, ainbat alderditik igonda. Orduan zan inguru aretako aberetza ikustea!! eta ez gaurko gaillur orretan diran aibeste aga eta tramankulu zoragarri, orain ia urte bi irratientzako diran aga orretaikoak jota trizkatu zan egazkiña lez trizkatzeko diran tramankulu orreik.

Orixe bai, benetan zoragarria da mendi-zale batentzat, Oiz-mendi gaiñean aurkitzea eta, azkenengo bertan aurkitu nintzanean gogotsu abestu neban Arrospide'tar Jon, "Don Juan" bere izeneko seme Jon osagille ospetsuaren aitak egindako olerkia: "Oiz-mendiaren buru-buruan / Urian baiño bestela, / Pozaren pozaz pozarren nintzan / Baso-txoria bezela, / Eta neuk zelaz ez nekiela / Eskuan artu txapela, Eta besoak jasorik / Abestu neban onela: iAgur Oiz-mendia! iAgur Oiz-mendi / Jaunaren eskerrez betea.

Benetan zoragarriak Euskadi'ko mendiak!!

BASA-JAUN



# IRU GIZON AUNDI

## EPE LABUR BATEN

Ille gutxiren barruan iru gizon aundi joan jakuz: Gallastegi'tar Klaudio, San Anton'go abadea; Alberto, "Aita Olaso" guztiz ezaguna eta Mañari-kua'tar Andres, guztiz jakituna.

Kondaira aurrera joaku eta gudaldi larria igaro zala berrogei ta amar urte eta geiago igaro dira. Orrelan orduan gazte elduak ziranak orain zartzaro eldura eta gure ludi au izteko ordura sartu jakuz.

\* \* \*

## ORDUAN IL ZIRANAK: JOSE SAGARNA

Asko izan dira aldi aretan gazte elduak izanik il ziranak. Onein artetik bat aukeratu dogu il onetan ZER aldizkari onetan gogoratzeko, Zeanuri'ko semea zan Jose Sagarna abadea. Onek ez eban izan beste iruren antzera berrogei urte oneitan erriaren eta fedearen aide lan egiteko aukerarik. Abade egin-barri zala kendu eutsoen bizia eta orregaitik gogoratu eta goratu-bearrezkoa dogu.

\* \* \*

## ARLO EZBARDIÑAK

Iru gizon aundi oneik lan aundia egin dabe, baiña bakoitxak bere lekuan, bere saillean, bakoitxak bere elburua eta orretarako bide berezia aukeratuta.

D. Klaudio'ren arloa, be-maillakoa zan, erri-zeiaren maillakoa, naizta Bilbo'ko parroki aundi bateko ardura-dun .izan. Bere mundua parrokiaren eta geienez Biz-kaia'ren muga-barrukoa izan zan.

D. Klaudio'ren elburua Barri Onaren eta fedearen ikuspegitik, erriaren eskubideen aide jokatzera zan eta elburu ori agertu ebalako, euskaldun zapaldu askok izan eben arnasea artzeko aukerea.

D. Klaudio'ren bideak, geien bat euskerea ta itzal-diak izan ziran eta bere abots aundia Bilbo guztian eta Bizkai'ko errietan entzun zan.

\* \* \*

D. Alberto'ren arloa goragoko maillakoa zan, Euska-lerriko Errigintzaren eta Eleizearen arteko artu-emonen arloa, giza-eskubideen Europa-maillako arloa eta esku-bide orreik erri zeigana eltzen diran neurrian eltzen zan be-maillara.

D. Alberto'ren elburua bakea egitea zan eta orretara-ko egin eban bere alegiña baiña zuzentasunezko bakea, giza-eskubideak oiñarri dauzan bakea.

D. Alberto'ren bideak, bere ibillaldi luzeak, gizon aundien arteko bakeak egiteko eta alkar-izketerako, bere itzaldiak London'etik eta Paris'tik Irrati-bidez "Padre Olaso" lez agertu zanean. Eta aldi baten langilleen munduan eta sindikatoen sortzean be bai.

\* \* \*

D. Andres'en lan-saillea jakituria ta billaketea izan ziran, batez be Euskalerrriaren kondaira-arloan.

D. Andres'en elburua gure erriaren kondaira argi-tzea. Gauza jakiña da benetako abertzaletasunaren oiña-rririk sendoena, toki guztietan eta batez be Euskale-rrian, erriaren kondaira ezagutzea dala.

D. Andres'en bideak, irakaskiantza, liburuak argitara-tzea eta irakurtea, itzaldiak, agiri zarrak billatu ta argitaratzea....

Orra or iru gizon aundi, eleizgizonak baiña erri-gizonak. Orra or iru arlo zabal gure errian ondo jorra-tuak, orra or iru zeregin eder zintzotasunik aundienaz betetuak..

Atsedean begie bakean, lan aundi ori bete ondoren.

## ANTXINAKO EUSKALERRIA GALTXAGORRIREN ESKUTIK

MARI, ANBOTO'KO SORGIÑA (III)

Galtxa-gorri onek asko daki ta Anboto'ko Sorgiña'ren barria. be, emongo daustala uste dot.

—Entzun, lagun zaar, Anboto'ko Sorgiña bizi al da...?

—Anboto'ko Sorgiña ta Murumendi'ko Damea, biak bat dira. Ta, "Mari" da bere izena...

—Izen polita da, "Mari".

—Aren menpean bizi gara guta, beste sorgiñ klase guztiak... Bera da gure eregiña...

—Emakumezkoa al da...?

—Ta, oso ederra... Leize batetik bestera, odei artean doanean, sua dariola joaten da...

—Etxe asko al ditu, ba?

—Euskalerriko koba ta zulo guztiak bere etxe dira. Bera, lurpeetako eremuetan bizi da; ta andik urteko ateak, leize ta kobazuloak ditu...

—Aberatsa izango da...

—Oso da aberats... Leizearen atakan egoten da bere uleak urre gorriko arraziakin orrazten... Ba'ditu, urrezko krisallu, urrezko errada, urrezko matasak, urrezko sukalde-ontziak be...

—Ez da urre gitxi...!

—Koba-zulo barruan ikatza dauka gordeta, ta kobatik kanpora urre biurtzen da ikatz ori. Ala gertatu jakon Markiña'ko neska bateri.

Bein baten joan zan Gabaro'ra, ardisan ta kobaren ondora joan zanean, Anboto'ko Señoriak barrura sartu eban, ta antxe azi eban neskatilla ederra. Bertan neskeak egiten eban bearran zan gorua egin ta gorua egin, ta sekula etzan kanpora urten. Beraz nai eban guztiak kanpotik ekarten eutson Señoriak.

Goiz batean esan eutson Sorgiñak: "kanpora urten bear dozu oraintxe". Berak ez eban urten nai, ondo egoala ta... Ta kanpora urteteko prantatu zanean, Señoriak esan eutson:

—Artu egizu ortxe esku bete ikatz.

Neskek erantzun:

—Zertarako dot nik ikatza?

Artu eban, ta kanpoan eskura begiratu ebanean, dana urre gorritz beteta eukan...

—Mari, ona al da...?

—Bere aginduak betetzen dituenentzako, bai, ona da.

—Ze agindu...?

—Oñeik dira Mari'ren aginduak:

Gezurrik ez esan.

Lapurketarik, ez.

Arrotasunik, ez.

Emondako itza bete bear da.

Gizakumeari errespetoa bear jako.

Auzo artean alkarri lagundu...

orra, Mari'ren zenbait agindu eder...

—Ederrak dira, Galtxa-gorri...!

—Bera be, ederra ta ona da. Ba'dakizu, ur billa ebillen artzain bateri zer egin eutson Mari'k?

—Ez, ez dakit.

—Egarri zalako, ur-billa ebillen Burumendi'n. Leize ondoan andre gazte bat ikusi eban apainduriz ta ederrez jantzita.

—Zeren billa zabiltz? —esan eutson andreak.

—Uraren billa. —erantzun artzaiñak.

—Uraren billa? Sagardoren billa esan naiko zundun.

Besterik gabe, ekarri eutson pitxar bat sagardo.

—Auxe bai, sagardo bikaña. Nongo sagarrekin egin dozu?

—Ikastegietako Montes etxeko jaunak EZARI emondako sagarrekin. —Eran-tzun eutson Mari'k...

—Ta, EZARI emonak zer dira?

—Guzurra esaten dauanari Mari'k kendutako gauzak dira EZARI emonak...

—Ori al da Mari'ren zigorra?

—Bai, ori Mari'ren zigorra da; baña ba'ditu berak beste zigor batzuk be...

—Ze zigor...?

—Geien gustatzen jakon zigorra ekaitza da. Tximista ta arrijasakin batera Oñeztarria maite dau...

—Oñeztarria...?

—Tximistea da. Mari'k zerutik botatzen dauan arrizko aizkora da oñeztarria...

—Aizkora bat...?

—Bai, aizkora bat. Orregatik, etxe atarian aizkora bat, aozgora, jarri ezkerro, ez da tximistarik etxe gañera jausiko... Ori be, ez zenkian?

Santimamiñe kobako marrazkiak nituan buruan, ta Galtxagorrik igarri eutson zer nengoan pentsatzen.

—Entzun, Euskaldun, Mari ez da beti andra lez agertzen.

—Ez...?

—Leize atakan edo atarian dagoanean, emakumea da; baiña, leize barruko illunpetan, animaliz jantzita ikusi dabe.

—Ze animalien jantzi...?

—Zezen ta bei gorriena...

—Bei gorrien kontua nik ba'dakit.

—Ia, ba, Euskaldun, esaidazu kontu ori...

—Bein baten, bei-zain egoan Irari'ko alabea. Eta gero, bei paltan etorri zan etxera.

Birao egin eutson ugezamak ez zala geiago etxean sartuko beirik gabe...

Iñularrean, bei billa joan zan ta billatu eban bere bei-figura gorri-gorria. Ta eldu eutson isatsetik.

Gero, pigura berekin, zulora sartu zan.

Ez zan neskea azaldu aldi baten.

Eta, zulo orren atakan, illea orrazten ikusi eben artzaiñak. Etxera deitu eutson gurasoai artzaiñak, neskea non egoan.

Urteteko esan eutsoen gurasoak neskeari.

Eta, neskeak txarri gorri txiki bat eban aldamenean. Eta a itzartuten ba'zan, galduko zituala esan zien gurasoai, ta aide egiteko...

—Bei gorri ta txerri txiki, zaldi zuri ta aker beltz, ari edo suge... Mari dira denak...

—Semerik ba'dau Mari'k...?

—Bi ditu: Atabarrari ta Mikelatz. Bata ona ta bestea gaiztoa. Ba'dakizu Lazkau'n zer gertatu zan bein...?

—Ez, nik...

—Mari'ren seme ona apaiz egin zan, ta bein, Senpere ballaratik joiala, agertu jakon beste anaia esanez:

—Gariak ederrak dagoz baiña ba'ditut gari orreik joko dituen zaldi galantak...

—Bai nik be, zaldi orreik geldi-araziko dituen freno indartsuak... Etxeratu zanean esan eutson apaizak bere neskameari:

—Murumendi gañetik odeien bat sortzen ikusten ba'dozu, esan eidazu beriala.

Alaxe gertatu zan.

Murumendi aldetik sortu zan odeia. Abadeak konjurua egin eutson; baiña, alperrik: kazkabarra, kazkabitoa, txingorra ta arria ez zan gelditzen. Orduan abadeak bere oñetakoa kendu ta baratzara bota eban, onelan esanez:

—Sartu daitezela or...!

—Ari guzia abadearen baratzan satur zan; baiña, erriari ez eutson kalterik egiñ...

Mari'k seme bat abadea ba'eban, bera kristau zintzoa izango zan. Bada ez pada Galtxa-gorri'ri galdetu neutson:

—Ta, Mari kristiñan al zan...?

—Jentilla zan, ta kristiñau biurtzerik ez eban nai izan. Ara zer gertatu jakon: Bein, bere senarrak gurdi bateri lotu ta, elizara ekarri eban bateatzera, bere semeekin batera. Baiña, elizara eldu ziranean, sutan jarri zan Mari ta, lokarriak erreta, aidean Joan zan bere Murumendi'ko kobara, onelan iñoala:

Matias Muru'ko,

nere umeak

zerurako;

ta, ni orain

Muru'rako...

Kristautasunari ez eutson eder-etsi. Naiago eban bere leize-zuloko jentil bizitza.

—Ta, arrezkero an bizi al da...?

—Bai, an bizi da, elizara etorri gabe.

—Ez al da asarretzen...?

—Aldika asarreak izaten ditu; baiña, oraingo alditan ez dau leenago... eban besteko indarrik...

---

---

# LANPOSTUA, LANIK EZ EGITEKO

---

---

Maiatzaren 15'ean, Isidro Deunaren egunean, gure, Euskotar, Iñaki Gabilondo'k, gaubeko bederatzietan asi ta aurrera, mozketa jokaera eder bat euki eban telebistan.

Niretzat ERAKUSTE ederra emon euskun, ADIBIDE onenak eta garbiak ipiñiaz gure begien aurrean, gura dabenak jarraitu ta norberenen bizimodua konpondu, ala-ta-be lanik ez daukenentzako.

Zelan lortu leiketen bakoitzak LANA, gure bizitza aurrera eroan kiña jo barik.

Orretarako kalean itandu eutson jenteari, onelan:

**ZUK ZER NAIDOZU:** Osasuna, dirua ala maitetasuna?

Danak, erabatera erantzuten eben: DIRUA, DIRUA, DIRUA, ... ondo bizitzeko.

Neure ustez, erantzun zentzun bakoia, orreik ez dakie, zelan eta nundik datorren DIRUA eta zelan irabazten dan.

Uste dabe, Israelitari MANA bezela jausiten jakula diru ori.

Olako jenteakin nora joango gara ba?

Gure Laterria ez da asko onduko asmo eta nai onekin.

Ez dakie oraintsu arte, gu oso txiroak izan garala, eskuko dirua Laterri guztian oso URRIA izan dala.

Oraingo GIZALDIAK uste dabe, egoera, oraingo bezela izan dala beti.

Ez dabe ikusi ez euren etxeetan edo inguruan BEARTASUNIK, EZALDIRIK, PREMIARIK, eskatzen daben aurrerapen guztia euki bear dabela, batzuk lortu egiten dabe, ostantzean NEGAR.

## ZERTARAKO LANPOSTUA

Gura dabe LANPOSTUA lanik ez egiteko, edo lan pizka bategaz ASKO IRABAZI, nai dabena eukiteko.

Euren gogoia da, lenengo egunetan zintzo ibilli, zerbait egin lana ZIUR euki arte, eta gero ALDANIK LAN gitxien egin.

Modu orretan konponduko dogu etxea, olan, erria eta euskalerria.

Orain ikusten doguz etxeak ONDO, baserriak be bai. Leenago lana UGARI eta neurritu barik egin dabelako daukie, daukiena.

Ez dot ikusi etxerik ez lantoki'rik obetu danik lana gogor egin bakorik.

Or ikusten doguz JAPON eta ALEMANIA, orain berrogei urte inguru austuta geratu ziran Laterriak, euren lanagaitik ugari eta ONDO egin dabelako, orain danen gaiñetik dagozala.

Ekoitza edo frutua lanean emoteko, gogoaz joan bear da lantokira, ta orduan gure gorputzak be ez dau nabaitzen edo sentitzen lana.

## LANA BADAGO

Bizkaian eta Gipuzkoan orain be ba-dago lana eta ganera UGARI.

Orduan zer jazoten da ba ainbeste langabeakoak egoteko?

Nai Bilbo'n, nai Gipuzkoan oraintsu berba asko egin dok OLAKO nagusi batzukin, batzuk senitarte-koak direlako eta besteak lagunak.

Danak ago betean esaten dauste: LANA BA-DA-GOLA.

BAIÑA, BILDUR gara, langille barriak ARTZEKO.

Ze arraio dago ba or? BILDUR GARA, langille barriak artzen LEGE-GIZONAK diralako. Dakie edozein lege-gizonek baiño geiago gauza orretan; euren ESKUBIDEA ondo dakie eta egin-bearrak EZ. ORDUAN zer jasoten: da?

EURAK lan gitxi egin, eta lanean ondo dabiltenai, oztopoak ipiñi, maltzurkeriak asmau, besteak BIURRI ipiñi, eta DANA ONDATU. Ori da jazoten dana.

Danak txarrak ete dira? Ez. Baiña bai asko, SAGAR pillo baten bat ustela ba'dago, danak ondatuten diran lez, onelan lantegian be, alper bat sartu ezkerro, guztiak ondatzen dira.

---

# GIZARTEA

---

Onegaz ez dot esan gura oraingo GIZON eta GAZTE guztiak txarrak dirala, ondiokan badagoz zintzoak eta langilleak be, ta eurei eskerrak aurrera jarraitzen dogu.

## NAGUSI BATEN BURUKO MIÑAK

Domeka baten niñoiari txangur batera, ta Artxanda inguruan aurkitu nintzan talde bategaz, nai eta ezagunak ez izan, geurekin bat eginda barriketan-barriketan joan giñan luzaro.

Etixerako ordua izan zanean, batek esan eustan:

Mezedez, lagunduko daustazu ibillialdi luzeagoa egiten?

Ezetzik ez neutson agertu, nai eta nire gogoan alan izan ez.

Gure BAKARDADEAN agertu eustan zer jasoten jakon.

Egintza bateko zuzendaria zan. Bere KIRIOAK bere tokitik kanpora eukazala, eta ezin ebalu lorik egin, jan be ez, eta oso urduri eta arduratsu ebillala, orregaitik eskatu eustala mezedo ori.

Ia bada, mendietako edo kanpoko aizeaz, zerbait nasaitzen zan.

Ordu bi inguru ibilli giñan alkarregaz eta bere barruko KESKAK agertu eustazan eta, gizon ori gelditu zan biotz-ustu edo lasotasun izugarri bategaz, onelan biurtu giñan etxera, oso lasai ta bigunduta.

Zergaitik eukazan neketasun orreik?

EGUNERO, aregaitik edo orregaitik, eukala bere lantokian, asarrea, naigabea, eztabaida itzelak jente maltzur, biurri eta guzurti batzukaitik.

Alan ezin leikela bizi eta beraka-beraka etorrela lantoki ori eta ITZI egin bear ebala.

Orain sarritan ikusten dot kalean, baiña buruko miñik barik, nasai, zorionsu, irribarreka.

Au da bizitzea ez lengo postua.

## BESTE ADIBIDE BAT

Adibide au dakart gure gogora, gorago esan dodana baieztu edo FINKATEKO.

Emen diñotena, Bilbo'ko auzo baten jazo zan, orain dala urte bi.

UGAZABA baten eldu jakon Jubilateko ordua edo adiña .

Ez eukan NORK jarraitu bere lana nagusi bezela lantokian.

Egun baten langille guztiak batu zituan, olan biotzez esan eutsen:

Zuek orain arte ondo irabazi dozue, zuen sendi ta familia, ederto bizi izan da, seme-alabak be ASI dozue poliki, etxe ederra be badozue, geienok berebil bat be bai, ONDO BIZI ZARIE.

Nik ezin neuke jarraitu nire lanean eta zuei ogia emoten.

Orduan GURA NEUKE, zeuek JABE EGITEA.

Emen egiten dan guztia saltzen'da ondo, bezeroak be onak daukazue, lan apur bat egiten ba'dozue, danon artean, lana eukiko dozue, orain arte bezela biziko zarie.

Emetik amabost egunera gura neuke erantzuna, bes-tela lanik gabe aurkituko zarie kalean.

Euren erantzuna: GUK GURA DOGU SARI ONA, BURUKO MIN BARIK, eta ez gara JABE EGITEN. Orduan danak kalera. Ez dago zer esanik.

Olako jenteakin ezin gorakarik egin, ez omen eta ez iñon.

Oraingoa da: Asko eskatu ta gitxi emon edo egin.

Onela ikusten dogu talde guztietan, eta euren ASMOAK beteten ez badira, or doaz dana AUSTUTEN, apurtzen, birrinduten.

Erakunde taldean, KALITATEA obetuko dauela ta abar, bai ezelako kalitaterik ez da ikusten iñondik. Erakundeak KALITATEA emoteko. BORONDATEA bear da, eta beztela ez dago kalitaterik.

ETXEBERRIA-TAR ISIDOR



# BALENTIN BERRIO-OTXOA (VII)

JAZARPENAK ETA ERIOTZA

GOIRIA

## EZKUTAUTA

1858'gko. garrilla zan. Geroago ta gogorrago iñar-  
duen erasoak kristiñauen aurka.

Tu-Duk erregeak eta beste bere menpeko agintariak  
Bikariato zentralako mixiolarien billa ebilzan. Lurralde  
aretatik lenbailen iges egin egiala agindu eutsan Garcia  
Sampedro Gotzaiñak Balentini. Ninh —Kuong itxita ken—  
Laera loan zan au.

Antxe geratu zan seminarista batzukaz andratxu baten  
etxe baten. An egoan Ilario Alkazar Gotzaiña be. Balen-  
tinek ez eukazan aztuta bere eliztarrak. Sarri idazten  
eutsen sinismenean gogotsu jarrai egien.

\* \* \*

## ETXEKOAK

Bere gurasoai be sarri idazten eutsen eta beti lez  
umore onaz. Olako itz-berbak irakurri daikeguz idazkiotan.

"Neure amatxo maitia, ta gure atso bizkorra: Bizi  
da oraindik ala urten eban mundu onetatik? Desiva  
etxat falta neure amaren letra asartua ikusteko. Urte  
bat eta erdi da iya nere amaren notiziarik eztaukadala.

Jaungoikoaren aurrian presente ekiten dot gure atxo  
piña eta Ama Birjiña Mariyari eskatuten deusat libratu  
deyela peligr guztietatik, ezteyola itxi pekatuan jaus-  
ten eta eriotza on bat emon deiyola."

"Ni bizkor eta osasunagaz nabil; urtebete eta geya-  
go da etxe baten naguala, eta palazio eder onek lastoz-  
ko tellatua dauko, kakamasazko ormia, kañazko poz-  
tiak, kañazko kuartoyak eta kapiriyuak, kañazko atiak,  
eztauko suelo bat baño eta au da lurrekoa. Palazio eder  
onetan erregiña berian baño obeto bizi naiz."

Amatxo maitia: Balentintxu basati bat eginda dago;  
nire arpegiko bixerrak diabrua berbera bildurtuko leuke."

\* \* \*

## OTOITZ ETA LAN

Antxe etxetxu aretan bizi zan Balentin gau ta egun  
otoitzean, Propaganda Fideko erabagiak ikasi ta Obis-  
paduko beste zeregiñak betetzen (Arrieta Maskarua)  
Balentin otoitz askoko ta gogo andiko gizona zala iño-  
tsan Alkazar jaunak Orjeri Aitari.

Lan asko eukan... bere artaldea an-or bananduta ta  
bera osteria ostonduta ibilli bear. Iñoz ez eban itz-berba  
bat arerioen aurka. Sanpedro jaunak Obispadutza lepo-  
ratu eutsalako barriz au iñoan irri-barez: "Zerura ba'noa  
an erantzun bearco daust zer egin eban".

\* \* \*

## MIRARIZ BIZIRIK

Garillaren 8'n arrapatu eben Garcia Sanpedro zortzi  
egun-barruan il. Balentin be arrapatu gura dabe. 1858'gko.  
urrillaren 31'n bazkaltzen egoala mirariz ez eben arra-  
patu. Otoz-otoan satur yakozan etxe-barrura ta zulo  
baten ostondu zan. Ito ezanean!

Yazarpenak aurrera yoyazan. 4 Gotzain, 9 mixiolari  
ta bertako 115 abade il ebezan. 80 konbentui sua emon  
eutsen bertako monjatxuak iges egin eben zorionez,  
baiña 100 arrapatu ebezan eta il. 100 erri erre ebezan  
eta 2.000 kistar-erri txiki deseztu; 40.000 ta geiago il  
ebezan aldi aretan.

Euren bizitzan arriskuan egozala-ta Tonkin iztea era-  
bagi eben. Bost bakarrik geratu ziran: Hermosilla ta  
Berrio-Otxoa Gotzaiñak eta Almato, Fernandez eta Ria-  
ño Aitak.

Ipar-aldera yoan zan Balentin eta Lang Tay-aldean  
geratu. Eta andik barriro be Huong Lara biurtu zan eta  
antxe egon iru urte bere artaldea zuzentzen.

\* \* \*

## ARTZAIÑA ARDIAKAZ

Egun baten ba-diñotso arrantzale, bateri: "Do-Thanh:  
Bikariato zentralera joan gura neuke bananduta dago-  
zan neure kistarrak ikusteko. Euren artean il gura dot  
Jaunak ni ii naitela gura ba'dau".

Jauna-diñotso arrantzaleak: prest nago zu eroateko;  
ibai ta bide-ziorrak ondo be ondo ezagutzen dodaz-ta.  
"Baiña alperrik izango da dana".

Jantzi batzuk dakartsoz iges egin dagian. Baiña jan-  
tziai ta Almato Aitari begira diño: "Ezin dot, ezin dot.  
Almato Aita bakarrik izteak min-damost".

Eta Balentin Zuong-Laran geratu zan eriotzaren zai.  
Eriotza urreratuz yatorko.

---

# ELEIZEA

---

## BAITUAK

Maitiñak errezatzen egoan Balentin goiz baten Almato Aitagaz. Oin-otsak entzun dauz euren morroiak. "Oiñatzak agiri dira emen, urrin ez dira. "Ixiltuago-diñotse eurekanatuta. Arerioa emen dago ta Agintaria be ba-datorrela dirudi.

Ondo da —diño Balentinek— olan ba'da, zereegiñik ez da."

Ta berealaxe ots au. "Geldi danok —diño agintariak—; oinkadarik ba'damozue ilko zaituegu. Irureun gudari ziran gizon bi arrapatu ta ilteko.

Jetzemaniko jazoeragaz antzik ez al'dau jazoera onek?

30 killoko kate bat lotu eutsen samatik.

Urira eroan ebezan Balentin eta Almato. Gurutza Santua ipiñi eben sarreran zapaldu egien. Belaunikotuta mun egin eutsoen Gurutzari.

Jagi da Balentin eta kementsu diñotso agintariari: Agintari jauna: Kristogaitik ilteko prest gagoz, baiña Gurutza zapaldu egundo be ez... edo baztertu egizu edo oinkada bat ez dogu egingo aurreruntz."

\* \* \*

## AUZIA TA ESPETXEA

Jendetza andia batu zan eta euren artetik igaro bear izan eben martiri leial biak. Trang-Thuko gaztelura eroan ebezan; antxe egozan euren auzitegikoak.

Ba-diñotso nagusiak:

—Izena zelan dozu?

—Vinh da nire izena.

—Zenbat aldi daroazu emen?

—Lau urte.

—Non bizi zara?

—Buitxuguko Bikariato Zentraleko Gotzaiña naz, baiña jazarpentakaitik Probintzi onetara etorri-bearra izan dot.

- 1858'gko. matxinzaleakaz artu-emonik euki dozu?

—Ez.

Lien Hermosilla ezagutzen dozu?

—Bai, ezagutzen dot.

Galdera bardiñak egin eutsoezan Almato Aitari.

Espetxera eroan egiezela agindu eban Lendakariak. Antxe egon bearko eben kaiola barruan jesarri barik, zutunik. An egozan Hermosilla jauna ta Zanh bere laguna be. Egunero artzen eben Gure Jauna mutiko batek ixillean eroanda.

\* \* \*

## ERIOZARA

Beste galdera batzuk be egin eutsezan bie andik egun batzuetara. Kristoren erlejiñoa ukatzen ba'eben ez ebezela ilko agindu be bai. Ori egungo be ez-erantzun eben kementsu. Au ikusita il egiezela agindu eban Lendakariak.

Eldu gara ba Balentinen bizitzaren gallurrera. Azillaren lenengoa zan. *Domu Santu*. Jai au zeruan ospatzeko gertuta dagoz Balentin eta bere lagunak.


Eguerdia... eguzki beroak diz-diz dagi. Hay-Doungo kaleetan Tranh-Khan-espexetik urtenda erioztokirumtz doa jendetza. 500 gudari aurretik; gero iru elefante ta onein ondoren Hermosilla, Almato ta Balentin kaioletan; sei gizonnek daroez, alboan doa espexean bateau daben erioztallea ta atzean eraille ta agintariak. Bidean doazan bitartean otoitz dagie irurak eta bein urkamen-dira eldu diranean gauza bi eskatu dauz Hermosilla jaunak: euren laguna il dagiela lenengo ta ordu beteko bizia otoitz egiteko. Eriozzallearen burua lurrean dago odol-tartean; iru santuak otoitz-dagie.

Ordua bete da, eldu da ta turuta entzuten da. Iru mixiolariak erioztokira aurreratu dira. Ez dabe agertzen artegatasunik. Pozarren dagoz.

\* \* \*

## BETIKO DOMU SANTU

Iru taketa agiri dira lurrean. Andratxu batek sei azpiki ipiñi dauz beian lurra estaldu dagien. Iru zapi zuri ikusten dira azpiki onein ganean. Bigarren aldiz turutak jo dau. Eztakai lotuta dagoz irurak. Itxiltasuna... ixiltasun-otza da inguruan. Alako baten tanbor-otsa... epaikariak emon dau agindua... Berrio-Otxoa ta Almatoren buruak lurrean dagoz lenengo ukaldian. Urrengonean, bigarren ukaldiak Hermosillarena be lurrean da. Iruren arimak zeruan itxartu dira betiko DOMU SANTU, betiko jaija ospatzeko.





## JOSE SAGARNA ABADEA

## LARROSKAIN'era

Milla bederatzireun da ogeta-amabostean, beste bost erriko seme gazterekin batean Zeanuriko errian, abade-tza artu eban Jose Sagarna mutil gazteak. Aldi aretan Euskalerrria oparoa zan on askotarako seme alabak sortzen. Argia, aizea, sinismena, Iangilletasuna, bizi bizi-rik, agertzen ziran nunatik ta ez gitxien baserritarren artean.

Munduak, ondo, daki euskaldunaren barri lurraren edozein egaletan ta ezaguna da ta aipatua, beti, izan da. Olako gizon zintzo, abade leial bat milla bederatzireun da ogeta-amabostgarrenean Larroskainera eldu zan. Don Joserren gogo on guztia zan Larroskaindarrak kristiñau erri legez otseindutea. Aldi artako Larroskain, izan bere, baserritar utsezkoa ta geienez, ardi zuri zurizko artaldea zan. Kostola, Damukorta, Imittola, Kanterape, mendi gaiñetako etxeak izan arren, jaiero, joaten ziran mendi barrenean egoan Eleizara, Jaungoikoari oparia ta euren neke ta lanak eskeintzera.

## ARTZAINA TA ARDIAK

Amulategi baserria ego alderantz dago mendi gain gaiñean. Egun baten baserri onen lurraren gaiñean Don Josek Larroskaini esango eutson odola emonez: Larroskain, maite zaitut.

Artzain onen artzaingoa laburra izan zan Parroki onetan. Abade zintzo onen almenak eztizkoak lakoak ziran; beti, bere izaera ta egiteen bidez Jesusen irudia Larroskaindarraren artean zabalduz. Artzain ta ardi geienak bat ziran. Artzaiñak ardiak ezagutzen zituan ta ardiak bere euren artzain maitegarria ezagutzen eben. Ona, ixilla, abade zentzuduna zan eurentzat.

\* \* \*

## BERRITU ETA GUDALDIA

Denpora gitxirakoa zan Larroskaindarentzat abade ain estimagarria. Berriturrak, an egozen auzoan, Don Joseri bagira ta gizon onen almenak ikusirik, laster,



Zeanuri'n batera egin ziran sei abadeak Mateo Muxika Gotzaiñagaz eta Igorre'ko beste gotzain misiolari bategaz, onein artean Jose Sagarna abadea.

lortu eben eurengana eroatea. Baiña guztia izan zan laburra, guda zakar bat sortu zan zoritxarrez ta samintasunez mindu eban Euskalerrri guztia. Milla bederatzireun da ogeta-amaseiko garagarriaren amazortzia, edes-

tjan, beti, izango da egun larria, illuna ta odolez gorritua.

Guda areri "La Cruzada" izen aundia jarri eutsoen. Baiña Kurutzearren maitasunik izan ete eban...? Kuru-

---

# GUDALDIAN

---

tzea ezainduta ez ete zan geratu ainbeste gorroto, ilte da odolegaz...? Beste guztiengandik aparte, Zeanurikoak zazpi seme eleizgizon il zituen guda sail bietakoen artean. Gure euskaldunak eta gure eleizgizonak eroan eben orrenbesko martiritza, sortzez artu ta eskubidez zaindu bear eben lur ta bizia maitatzearren. Bien bitartean agertzen ziran euskaldun agintari seme leiñargiak erri gizon ta abadeen biziak zaintzen ta gorrotak erre nai zituan Eleizak su artatik jagoten.

Gudaren sorreran Sagarna'tar Jose abadea, Ebanjelioaren egia ta zuzentasuna zabaltzen Berrituko erri eder ta apaiñean aurkitzen zan. Ille batzuk eroizan an, bakarrik. Aurretik beste ille batzuetan Larroskaidarren abade, artzain ona, izan zan. Ta ainbeste gorroto ta odol ixurtze bere egoetan ekarren guda lotsagarri ta iraintsua sortukeran, Larroskainera beren bizia zaintze-  
ra joateko erabagia artu eban.

\* \* \*

## LARROSKAIN'ERA ETA BAITUA

Don Jose, nora zoaz bildots otzana...? Otsoak bai dabilteze zu iruntzi nairik mendian...! Ezpaiko egun larrian Larroskainera eldu ziñan ta bereala, salatu ta berberaen bidez saldu zinduezan. Gurari txarrak ebiltzezan buru, biotz ta barruren batzuk bide okerretarako zirikatzen. Zuk izan bear ete zendun oparitarako eskeini bear zan giza-oparia...?

Biziaren billa joan ta etsaien erpapean, laster, jausi ziñan. Lotu zaitue ta zure lenengo espetxe edo presondegia Larroskaingo Eleiza izan ei zenduan. Antxe Jesussegaz alkartu ziñan berbetan, otoitzean ta samiñetan... Andik iru-lau egunera esango zenduan berbea edo jazoe-raren barri emoteko argia San Iñazioren Eleizan artu al zenduan...?

\* \* \*

## MANDIOLA'ra

Giza laguntza barik, bakarrik, minduta ta Kristogaz bat eginda Eleizatik eriotzarako atera zinduezan. Mendi latz bat zeunkan aurrean, zuk lengo aldian bakez ta maitasunez igona, baiña orain, gorrotoz doaz gizonak

zure inguruan. Kristoren antzera Mandiolako Kalbario gaiñera zaroaze. Samin geiago ezartearren, zapiagaz begiak estaldu eutsuezan, oiña nun ezarri ez zenkiala. Ta inguruan asmetan zenduan irri ta burleak zauritu eutsuen biotza.

Mandiolako Kabario gaiñera eldu ta beien kortea izan zendun, egun biren buruan, zure egon leku ta presondegia. Ainbesterañokoa zan gizonen gogorkeria ta gaiztakeria...! Kortako arriak eurak be lotsatuta egozen bildots errugabea taju aretan ikusiaz.

\* \* \*

## ERIO TZ-EPAIA

Eriotz epaia emoteko eroan zinduezan toki artara... Ta Mandiola, beti, izango zara Jose Sagarnaren eriotz epaiaren testigu.

Mosu emonda saldu ebanean, Jesusek Judasi esan eutson: "Mosu Bategaz saltzen dozu Jaungoikoaren semea..." Jaio ez ba ziñan, oba zenduan. Zuk, Jose, epaia artu ondoren au esan zenduan: "Nire epailaria zoritxarrez ilgo da."


Ta ondoren, iltzailleak ta lagunak inguraturik, Amulategi baserrirako bidean jarri ziñen. Une aretan Euskalerriko oparia zu ziñan. Ordua eltzen egoan burdiñaren bidez zure gorputza zulatu ta bizia deseztuteko. Amulategik zelai bat dauka etxea aurrean, mendi gaiñean sagar-zugatz biren magalpean. Zure eriotzearen testigu izango dira euren bizian.

\* \* \*

## LARROSKAIN'era BEGIRA

Toki artara eldukeran, norantz begira iltea nai zendun galdetukeran, zuk Larroskainera begira aukeratu zenduan ta une aretan bertan, zure odolak zelai orlegia gorritu eban.

Milla bederatzireun da ogeta amaseiko Urriaren ogeia egun larria izan zan Amulategiko jente agurgarriarentzat. Ta arrezkerokoa, gora-bera guzti onen ziñaldari egokiak dira.



Jose Sagarna Abadea Larroskain'en il eben ogei to lau urtekoa zala.

### "ZORI TXARREZ ILGO DA"

Gau aretan guda-soiñuak, beti legez aurrera, jarraitu eban urrengo egunera artean, ta goizeko zortziretan, eguna argitu ta lasterrean, Etxebarriko Beide baserritik urten eban lenengo kaiñoi otsa, zuzen-zuzen ta bete betean, Mandiolan sartu ta komandante agintariari anka biak kendu eutsezan. Gizon a izan zan Don Joserren il-epaia izenpetu ebana.

Ta une aretan gogoratu zituen Mandiola aldeko baserritar ta Frankoren soldaduak, Don Jose abadeak il-aurrean esaniko berbak: Nire eriotz epaia emon dauana, zoritxarrez ilgo da. Berba oneik, arin, zabaldu ziran Etxebarran, Larroskainen, Markinen ta inguru artako lur guztia dadaratuta itzi eben.

### IPUIÑA ETE ZAN?

Ipuiña neritxon ta ezin neban sinistu gudako inguru artan, Don Josek olako berba ain itzalak esan eitekezanik, gogorkeria besterik ez egoan egun aretan. Erritar jenteak ostera, baietz, alan zala, bala-bala, erabillen miñean. Don Joserren eriotzak dardara eragin eban Bizkai ta Gipuzkoa alkartzen diran alderdi aretan ta denporearen joan-etorriak argitu bear zituan auzi orren gora-bera guztiak.

Aldi aretan, Jose Artetxe Azpeitiar seme ta idazlaria gudako jazoeren egunerokoa egiten ebillan. Ta bein baten, Bilbotik Donostirako trenean joialarik, falanjista bat esanalak esaten ebillan euskaldun jente, ta batez be, euskaldun abadeen aurka. Jose Artetxeren aurrez aurre, rekete sarjentu bat joian oso urduri, entzuten zituan aokada guztiakin arrituta. Artetxe jauna entzuten ta ikusten ebanagaz arrituta egoan, rekete areri zer jazoten ete jakon arduratuta...

\* \* \*

### SARJENTOAREN ERANTZUNA

Egun artako egunerokoa idazteko, gai on bat <sup>ikusten</sup> eban, baiña ezin zan ezer galdetzen ausartu guda giroaren bildurrez. Alan be, barruak dei egiten eutson, zer jazoten ete jakon galdetuz, epai egun larri artan Mandiolan egon bait zan.

Rekete sarjentuak era onetan erantzun eutsan: "Nik ezin neike euskaldun abadeen aurka ezer esan. Bein baten Mandiolan, euskal abade bateri eriotzako epaia emon eutson soldaduen buruak. Ta epaia artukeran, abadeak esan eban: "Nire eriotz epaia emon dauana, zoritxarrez, ilgo da". Ta urrengo egunean, goizeko zortziretan, lenengo kaiñoi-otsak anka biak kendu eutsozan Mandiolan bertan. Ta negar ta alarauka Larroskainera jatsi eben odol ustuten gizon gizajoa.

Iltea ez, on egitea da barru bakerako biderik onena.

Lengo baten, abade batzuk joan ziran Larroskaingo illerrira, ta orain berrogeta-amabi urte il eben Don Joserren illobi gaiñean larrosa bat aurkitu eben.



## ONAINDIA'TAR ALBERTO

("PADRE OLASO")

Donibane Liotzun'en, Etchegaray kalean 1 In.atean bizi zan Onaindia'tar Alberto abadea. Antxe alboan dago bere anaia zan Txomin'en izena daroan beste kale bat.

Ainbatetan joan giñan, eta beti pozik, etxe orretara. Batzutan Alberto'ri lanen bat egiteko eskatzera, baiña, azkenengo urteetan batez be, bere gaiso-aldian ikustaldia egitera.

Azkenengo urte oneitan zartzaro onean bizi izan da gure D. Alberto, baiña zori txarrez, gomutamena apur bat galduta. Gauza asko eukazan oraindiño bere buru argian, baiña beste asko ezin gogoratu izaten ebazan.

Gaiso-aldi orretan D. Alberto berbatsu eta biotz oneko agertzen jakun eta agur egikeran esker onez auxe esaten euskun: "Etorri barriro be nai dozuenean emen pozik artuko zaituegu... baiña zuek ez zarie etorriko geiago."

Eta gomutamena apur bat galduta euki arren, D. Alberto'k bere eritxiak zorrotz eta argi agertzen ebazan, berak bere bizitzan ainbeste auznartutako eritxi elduak ziran eta "testamentu antzera" artzeko berbak ziran bereak: Alderdi politukuak eta erria, eleiz-agintariak eta

kristiñauak, giza-eskubideak, gaurko jokabideak Euskalerrian... eta abar.

Gure ZER onen bidez ezin itzi esker ona agertu barik D. Alberto'ri eta bere etxeoai: Esker ona bere aurpegi alaiagaitik, bere etxeko ateak beti zabalik egotzalako, bere maia eta janariak gugaz banatzen ebazalako, bere agur bero ta maitagarriagaitik...

\* \* \*

### ORDUA

Eldu jakon D. Alberto'ri itxaroten egoan bere ordua, bere etxekoen aldetik eta batez be Karmen bere arrebearen aldetik ondo zainduta, txirotasunean baiña ezeren falta barik, egunero bere etxean mezea ospatzen ebala... bake-bakean igaro ebazan Alberto'k bere azkenegunak, edozein euskaldun zintzok beretzat nai izango leukezan lango egunak.

Zeaztasun aundi barik eta billaketa zeatz sakonak beste batek egiteko itzita, idaz-lan onetan D. eginkizuna agertzeko diran gauza batzuk gogoratu ko doguz, berak berbaz eta egitez egin eban lana, eleizgizonaren lana eta erri-gizonaren lana.



Ezkerretik eskoirra: Aita Lino, Bedita Larrakoetxea, Alberto Onaindia, Santi Onaindia eta orduan Zeanuri'ko Txaburu zana. (1980-8-16).

## BERBAZ

Guztiok dakigu Izlari argia ta trebea izan zala, baiña geiago be esango neuke, izlari ausarta zala, iñok esaten ez ebazan gauzak esaten ebazala.

Eta ori lenengo ta bein eguneroko alkar izketan eta egotaldietan, olakoetan agertzen diran eritxiak ez dira ainbeste zabaltzen, baiña erri-azia dira eta erria egiten dabe. Garrantzi aundiagokoak agintari maillan dagozanakaz eta bakea egiteko bear ziran artu-emonetan.

Baiña D. Alberto'k egin eban berbazko lanik ospe-suena ta ezagunena London'etik eta Paris'tik egin ebana izan zan.

Nor ez daukaz gogoan agintaritza gogorraren men-pean gengozala gizaeskubideen alde eta arazorik gogorrenak aztertuz "Padre Olaso" izen-ordea-gaz D. Alberto'k egiten ebazan berbaldi areik?

Arlo onetan be gorabera aundiak izan ebazan D. Alberto'k eta azkenean politika-jokoak lortu eban bere abots zolia isiltzea. Baten batek aztertuko al dauz orretarako izan ziran agintari-arteko jokoak.

\* \* \*

## EGITEZ

Berbetan trebea zala D. Alberto esan dogu, baiña egiteetan be ez zan makala. Gure lenengo Lendakariak

aolkularitzat artu eban eta ortik lan aundiak etorri be bai, toki askotara joan-bearra eta ibillaldi luzeak sarritan egin bearra izaten eban, bake-lana egiteko.

Geroago UNESKO'n izan genduan langille.

Euskaldunak guda mingarria galdu genduanean Santoña'n azkeneko bakea edo ituna egin bear izan zanean, an izan ei zan D. Alberto eta guda ori barri zala be ondoren onik izan ez eben bake-alegiñak egin ebazan.

Lenengo Jaurlaritza arek eta Alderdi Jeltzaleak Bati-kano'n izan ebazan artu-emonak, mingotsak izan ziran eta artu-emon orreitan bere alegiñak egin ebazan D. Alberto'k. Ez dira aiztu bearko Mateo Mujika Gotzaiña-ren "Los Imperativos de mi conciencia" karteia edo agiria argitaratzeko egin bear izan ebazan alegiñak.

Orrez gaiñera, berbea eta egitea batera diran liburuak argitaratzea izan da bere zeregiña. Or agertzen da geienbat D. Alberto'ren pentsabidea.

\* \* \*

Pozgarria gure Euskalerrarentzat olako gizon bake-tsuak eta argiak sortzeko almena izatea. Jarrantuko al dabe bake-gizonak euren lanean gure erri zauritu onetan.

OLAZAR'tar MARTIN'ek



## ALBERTO ONAINDIA'REN ERITXIAK

### EUSKERA TA ZENTZUNA

Danerako bear da zentzuna, euskera aurrera aterateko ta indartzeko be bai. Alberto Onaindia'k ondo ekian euskeraz berba egiten, baiña bere lan-arloa ez zan izan ori. Dana dala, bere eriotz-ostean eta berari zor jakon omen lez agertzen doguz emen berak idatzitako eritxi batzuk. Alberto'k zentzunezko jokabidea agertzen dau.

### "LENDAKARI" ALA "LEHENDAKARI"

"Zuzendari jaunak: Zuen ardurapean diran egunkarietan, `El Correo Español-El Pueblo Vasco'n eta `El Diario Vasco'n, 1982,ko zezeillaren 20'an eta 22'an, argitaratu da `Aguirre Lendakariaren Irakaskizun bat' idazpurua daroan nire idaz-lana.

Lan orretan bitan agertzen da "lehendakari" berbea, "h"agaz. Garrantzibako gauzea dirudi. Baiña nik bialdutako idaz-lanean ez zan agertzen izki au.

Gogorik onenagaz, zalantza barik, uste izan eban baten batek "h"ak nire lana osotu egiten ebal. Baiña sarritan berba batek eta oraingo onetan izki batek esangura barri bat agertzen dau.

Euzkera idazten nagusi diran asko barru-berotzen dauz gaur izki orrek. Nik ez dot iñoz "h"agaz idatzi mugaz egoaldean diran euskaldunentzat idazten dodanean. Emen Donibane Loitzun'en, Laburdi'n, "h" ori idatzi egiten da eta bere abotsa dauka arnasazkoa, gozoa ta eresduna. Egoaldean ez dago olakorik.

### LEKUONA'TAR D. MANUEL

Antza dagoanez H batu-zaleen lantza-erpiña da eta jakia da, baita, H'a dala jakintza-giroko iraultzaren ezaugarri agiria (simbolo plástico) ETA'ren jarraitzaileentzat. Gaiñera Euzkal-idazle itzalgarria ta ezaguna dan Lekuona'tar D. Manuel'ek diñoanez "Atxezaleak" bota egin ninduen Euskaltzaindiaren Zuzendaritzatik, izenbako agiri baten indarraz. Eta nik naiago dot D. Manuel'egaz egon bere azpiratzaileakaz baiño.

### OIÑATIBIA TA LATIEGI'ren LIBURUA

Oraintsu argitaratu da Gipuzkoa'n, gai oneri buruz liburu irakurgarri bat: *Euskaltzaindiari Epai-keta*, Oiñatibia'tar Dionisio osagillearena eta Latiegi'tar Bixente abadearena, biak neure lagun aundiak eta onak. Irakurle guztiai diñotset liburu ori irakurri dagiela. Ez dakit Euskaltzaindiko iñok erantzun dau son. Isiltasuna ez da izango erantzun ona or agertzen dan arazo sakona bideratzeko, idazle orre in liburua benetako billaketa-liburua da eta ez dot ezagutzen arlo onetan lan zeatza-gorik eta jakintsuagorik, iragarten eta zabalkundea egiten dautsadan liburu au baiño.



Alberto Onaindia, Zeanuri'n, argazkiaren eskoian. Bere ondoan Aita bedita Larrakoetxea alkate jaunaren ordigaillua artzen. Bedita'k Shakespeare'ren antzerki guztiak euskeratu dauz.

Eskerrak zuzendari jaunoi. Adiskidetasunaz agurtzen zaituet."

DONIBANE LOITZUN'etik 82-II-1

A. O

(Euskeratua)

### BIZKAIKO EUSKERA ETA "ZER" ALDIZKARIA

"Bostgarren urtea daroa argitaratuta "ZER" illeroko aldizkariak. Bizkai'ko euzkeraz idatzia da. Ondo aurkeztua, bear ba'da txukunegia, baiña erabilgarriagoa ta obeto azaldua ta zabalagoa izan daiteke. Aldizkari onen iraslea ta Zuzendaria Olazar'tar Martin da. Zeanuri'n ezagutu neban ango txanburu zala eta orain Bermeo'ko Eupeme Deunaren eleizan da txanburu. Gizon ardurata, langillea ta eginkorra da. Ez dautsot esan idazlan au argitaratzeko asmoa dodanik, zelakoa dan ondo dakidalako."

"Baten batek esan dau: Deiaiko euskera ez dot ulertzen eta Egin'ekoa bai ulertzen dot, baiña ez da euskerrea. Urretik begiratu ezker, "batua"k politikan dauka jatorria eta politika bateri laguntzeko da".

"Antza dagoanez, lenengo billatzen dauana Bizkai'ko euzkera iltea da eta auxe da euskalkiak esaten jakenen artean geien erabilia. Ni onetan ez naz maixu baiña ez dot ikusten izkelkirik gure euskeran...

Jakin begie orretan diardenak, Bizkaiak eta euskerearen aldelariak ondo zainduko dabela euren jokabidea, aurrekoakandik artua eta zuzena.

ALBERTO ONAINDIA

(82-2-20) "EL CORREO ESPAÑOL"  
(EUSKERATUTA)

## BIZKAIERAZKO IDAZTI ZAR BAT

### ITZULTZAILLE-LANA

Zarra esan dot, baiñan ez da ain zarra. Joan dan mendekoa; 1868'ko loreillaren 5'ekoa.

Badau alatagutziz bere balioa. Lendabizi elebitasunaren edo bi izkuntza batean erabiltzearen adigarririk zarrenetakoa dalako, —Araba'n zarrena—, izparringi batean; eta gero itzulpen bat nola egin erakusteko eredu bikaina dogulako.

Zergaitik? Erderatik euskerara itzak ez baiña gogoe-tak itzultzen dauzalako.

Gaur-egungo itzultzaille txorook ori gogoan artuko ba'lebe, ez leukee egiten daben ainbat astakeri iguingarri-rik egingo.

Ta...lotsagarriena dana... gauko itzultzaille oiek diru-pillo mardulak jasotzen dabez, eta, —askoz lotsagarri-goia oraindik—, Euskatzaindiaren onetsiarekin jarduten dabela lanean?

\* \* \*

### FORU ZALE ALA ABERTZALE

Nor ote zan joan dan mendeko gure itzultzaille ura?

Ikus daigun aurrena idaztiaren gala:

"El Fuerista" izeneko izparringian argitaratu zan. Izparringi asko izan doguz izen orrekin Euzkadi'n. Fue-roen maitasuna, au da, Euskalerrriaren nortasunaganako maitasuna errañetaraiño sarturik egoan ba orduan Euzkadi'n.

"El Fuerista" bat Donosti'n irten zan kalera, 1888'an. Izparringi ontan idatzi eban Engrazio Arantzadi "Kizkitza" k. Arana Goiri'k gogor ekin eutsan izparringi oni, "Kizkitza" ri idatzitako eskutitzetan, "fuerozalekeriaren bidez abertzalertasunari aurka egitera zetorrela uste ebalako.

"Kizkitza" k ordea Iortu eban "El Fuerista" karlatar ura abertzale biurtzea. Ala, aurreneko zenbakian "Dios, Patria y Rey" ikurritza ekarren izparringia, J. E. L. ikurritzarekin agertu yakun 1899'ko Loreillaren zenbakian.

\* \* \*

### FORU-ZALEEN POZA

Alatagutziz, ez dirudi Sabin lasai gelditu zanik. Ikus

Sabin'en eskutitz oiek, orain arte argitaratu gabe egon diran Sabiñ'en beste eskutitz askoren artean, Aita Mauro Elizondo Estibaliz'ko Abata beneditarrak argitaratu-berri daun "Sabino Arana, Padre de las Nacionalidades" idazti oso-oso garrantzitsuan.

Joan dan mendeko "El Fuerista" onek ez eban Iuzaroan iraun, debekatua izan zan ba Kuba'ko gudatekoan.

Gero, 1932'tik 1934'era, integristek argitaratua "El Fuerista" berri bat kaleratu yakun. Baita, joan dan mendean Naparroa'ko Korella'n ere beste bat.

Korella, badakizu, Ibero Ibaiez aruntz Naparroa'ren oiñean dago. Iritxi zan araiño Lege Zarrarenganako zaletasuna. Sutsu gaiñera!

"El Fuerista" rik zarrena, ordea, arabarra dogu. Bizitza laburra izan eban, 1868'tik 1877'ra. Sortua ere orduan Araba'n gertatutako arazo zaratatsu bat konpontzeko izan zan ba sortua:

Lege Zarraren araura, agintaritzat bukatzen eban Alduna ezin eitekean bereala ostera Aldun izendatua izan. Ba Araba'n 1868 artan, Aldun Nagusi izendatua izan zan Egaña Jauna, eta Aldun Nagusi Ordezko Payueta Jauna, Lege Zarraren arau aren aurka. Asarretu ziran arabar asko eta okerkeri ura zuzentzeko izparringi au irasi eben Ortiz de Zarate buruzagi ebela. Ta beren naia lortu ondoren, euskeraz eta gatzeleraz kaleratu eben beren alaitasuna.

### ITZULPENEA

Euskeratzaillea, nere ustez, gipuzkoarra zan; bizkaieraz egiten daun Gizpuzkoa'koa. Oñatiarra agian, eta, seguruaski apaiza. Eta naiz itzulpena itzez-itzez egin ez, nabari yako gatzelera idazkeraren joskera. Aditz laguntzaillea aditz nagusiari erasten dautso, eta aldiak batzuetan ez dauz zuzen erabiltzen, adibidez, "eldusan" esaten dau "eldu da" esan bearrean. "Z" ren ordez "S" ipintzen dau; "C" beste batzuetan. Baita "Z" ere. Bete batzutan, "Z" adierazteko "TZ" ere erabili eban ikus gure itzultzaille aren lana, bere idazkeran:

iBici bedi Erregiña?

iBici bedis Foruak!

iBici bedis Baque onian Arabar gustiak?

---

# BLLAKETAN

---

Eldusan gura guenduen egun ona. Erreguiña gueure jabiac aguindudau barriro nombratu daigusela gueure provinciaco Diputadu generala, forusantuac, archinaco (sic) leguiac, aguinzen daben moduan.

Erregiñac ez dau gura, es, galdu daitezcan arabarren foru onac; gura dau beti eta beti gorde daitesala. Erreguiñac gura dau Arabar gustiac bisidaitesala baque onian, eta astu daijesala lengo guerrac (sic) eta itzan (diran?) gaisto (gaiztakeri, oker,) gustiac. Eta iñoc gueure artian gurabaditu barristatu itzan (diran?) gaistuac errionen foruaren contra, eukidaigula (guk) Erreguiñaren eta foruaren contrario ziquin bat legues. (Mako arteko itzak neureak dira).

Bici bedi Erregiña gueure Jabia!

Bici bedis foruac!

Bici Bedis baque onian Arabar gustiac!

Vitorian Mayetzeco bosgarren egunian milla sortzi-reun irurogueta sortzi garren urtian.

\* \* \*

## AOLKU EGOKIAK

Zalantzarik gabe esan daikegu euskeraz ondo mol-datzen zala itzulpen onen egillea. Eta, benetan, obeto idatziko ebala noski, aurrean gaztelerazko idazkia euki ez ba'eban.

Loreillean eman eban II Isabel Erregiñak gure idaz-ti onek gorai patzen daun lege ori, eta, bai noski, ori izango zan Euskalerriri-buruz Erregin arek emandako azkeneko edo ezkenekoetako legea, urte ortako irai-llan izan zan ba erregintzatik jaurtia.

Esan dogun lez, 1877'an il zan Gazteiz'ko "El Fue-rista", baiñan ez aurretik euskaldunoi aolku egokiak emon gabe. Entzun. Oraingoan, ni naiz euskeratzaillea:

"Maita eizue bereiziki eta gauza guztien gaidik egiazko Jaungoiko bakarra. Bera gurtu eben ba gure arbaso agurgarriek ere. Eta gero, maita eizue aiek itzi euskeran Lege Zar eta oiturak. Lege eta ekandu oiek egin dabe ainbeste mendeetan erri gaixo onen zoriona. Gero, alkar maite eizue; ez eiozue iñoiz bere zuen biotz leialetan sartzen itzi alkarrenganako gorrotoari. Ezta bere ez eiozue iñorri, naiz asko naiz gutxi, naiz aundi naiz txiker, naiz euskaldun nai atzerritar izan, gure askatasunaren kutxa donea lardaskatzen itzi".

\* \* \*

## ERRI GAISOA

"Erri gaixoa" esaten dautsoe arabar jator aiek Eus-kalerriri. Ez yake arrazoirik falta. Ordurako milla nai-gabe igaro bait ebazan Euzkadi'k 1833'an karlatarrak gudan asi ziran ezkeru.

Erri mixerablea esaten entsan Orixe'k, gure mende ontan Euzkadi'k igaro bear izan dauzan gaitzei begira. Zer esango ote leuke gaur, gure arteko zatiketa negar-garriari begira?

"Gorrotoari eta alkar-ezin-ikusiarri biotzean lekuri-k ez emoteko" idatzi euskuen antziñako arabar aiek. Gaur berriz, euskotar abertzaleok alkarrenganako gorrotoz bete-rik gagoz. Zatiturik datza gure Alderdiak, eta zatiketa orren oiñazez lerturik doguz sabindarrok geure biotzak.

\* \* \*

A! nolako ikasbidea emon dauskuen pesoetarrek. Jauregi dala, Benegas dala, Egiagarai dala edo Danbo-renea dala, bazirudian, Alderdi Jeltzalea zatitu zan beza-la, PESOE bere zatitzera zijoala Euzkadi'n.

Ez ordea. Pesoetarrek izan dabe jeltzaleek izan ez eben zugurtasuna, eta, zugurtasun orren ondorioz, pesoetarra ez da erdibitu.

\* \* \*

## ALDERDIA TA NORBEREKERIA

Ez yataz gizon oiek batere atsegin. Jauregi Madrid-'ko Jaurlaritzaren Ordezkarri izandatu izan zanean, Eus-kerazaintzaren izenean joan nintzan beragana ikustaldi bat egitera. Jauregi'k ez dau gizabidearen usairik ere. Begirune askorik gabe artu ninduan; ez eustan itzegite-ko astirik emon, eta besterik gabe, Franko bera mintza eitekean era ber-berean, "Euzkadi lur txikia dalako guk ez dogu akademi bat besterik onartuko, Euskaltzaindia; eta akademi orri bakarrik lagunduko dautsagu", esan eustan.

Ori fatxismo utsa da. Era berean esan eikidan: "Eus-kadi txikia dalako, guk ez dogu politikarako Alderdi bat bakarra besterik onartuko". "El Partido Unico"! Fatxis-mu borobilla!!!

Danborenea, eusko-askatasunaren etsai amorratu eta gizon zakarra dala, guztiok dakigun gauza da.

Alatagutziz, ezin ukatu, arazo ontan dotoretasun bikaiñez jardun dala. Naiago izan dau baztarrean gelditu Alderdi zatitu baiño.

Alderdi beren buruak baiño geiago maite dabela, argi erakutsi dauskue, PSOE'ko buruzagiek. Gureak, ez zati batekoak ez bestekoak, ez dira ori egiteko gai izan.

Guk beintzat, baseko jeltzaleak eta alderdikoak ez geran jeltzaleok, maite daigun Alderdi, zati bateko edo besteko buruzagi guztien gaidik.

Gora Sabin'en Alderdi bakarra, bir-bateratua!

LATIEGI'tar BIXENTE



# EUSKALERRIAN EUSKERAZ

## EUSKERAZALEAK

1988 - 89 IKASTURTEA  
OGEITABATGARRENA  
BIZKAIERAZ

IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

**EGUNAK: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN  
EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN**

**ORDUAK:** GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

**ORDANA:** 9.000 pezeta

**IZENA EMOTEKO-TOKIA: EUSKERAZALEAK**

COLON DE LARREATEGI, 14-2

BILBO.

URRUTIZKIÑ 423.53.22

**21.º** CURSO DE EUSKERA BIZKAINO. **3** NIVELES Y CONVERSACION

**DIAS:** LUNES, MIÉRCOLES Y VIERNES

O MARTES Y JUEVES

**HORAS:** MAÑANA, TARDE Y NOCHE

**CURSO COMPLETO: 9.000 pesetas**

**INSCRIPCIONES: EUSKERAZALEAK**

COLON DE LARREATEGUI, 14-2 BILBAO.

TELEFONO 423.53.22



**CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE BILBAO  
BILBO AURREZKI KUTXA**

## INIGO LOIOLA'KOAREN LORETZOAK

1991. urtean bosteun urte beteko dira Iñigo Loiola'n jaio zala. Aldizkari onetan bere bizitzako "loretxo" batzuk idaztea egoki dala, uste dot, Jesusen Lagundiko sortzaillea nor eta zelakoa izan zan jakiteko.

Orain dakardan gertakizun au Bartzelonan jazo zan, Iñigo Jerusalem'dik etorri eta bere ikasketak uri aretan egiten asi zanean.

Iñigo'k orduan 34 urte zutuan.

### KOMENTUAK GARBITZEN

Ba zan Bartzelonan 1524. urtean, ez ain fama ona eukan lekaiame-mojen komentu bat.

(Jakin bearra dago Trento'ko Kontzilio aurretik ez zala komentuetan klausurarik gordetan).

Mojakaz barriketa zoroetan denbora pasatzera, ango andizkien seme gazte batzuk sarriegi joaten ei ziran.

Iñigo'ren belarrietaraiño eldu zan errian zabaldua egoan surru-murru gaiztoa, eta Loiola'koak min artu eban.

Moja arein alde Jaungoikoari otoitz egin ondoren, ba-doa Iñigo moja buru-arin areingana, eta Jaungoikoaren izenean, arren eta arren, eskatzen deutse, gazte zoro areik komenturik aldentzeko.

Lekaiame areik, Iñigoren berba sutsuak entzunda, lengo zorakeriak itxi, eta bide zuzenera etorri ziran.

Gazte arein amorrua!!!

Ilunabar batean Iñigo Bartzelonako kaleetan zear bere eginbearretara joian eta bapatean esklabo baltz

batek bidera urten eta Iñigo'ri egundoko irain baltzak esan ondoren, zigor batekin ikaragarrizko astiñaldia emon eutson.

Astin-astin eginda, bide bazterrean konorte barik itxi eban.

Geroago andik igaro ziran errotari batzuk, norbaiten aiene! oi-u-miñak entzun ebezan... Eta Iñigo odoletan aurkitu eban.

Asto gainera jaso eta Teresa, Iñigo'ren zaintzailearen etxera eroan eban.

Ain txarto ikusi eban eta elizakoak emon eutsoezan.

Bi ilebete egin ebazan oian.

Nork jo eban jakiteko egin alak egin arren, ezin izan eban Iñigo'ren agorik izenik atera.

Bere oiñazen artean Iñigo'k Jaungoikoari bere are-rioen alde eskatzen eutsan...

Zer esanik ez, Iñigo oiñez ibilteko gauza izan zanean, bere lenengo urteera moja arein komentura izan zala, bizitza santuan irauteko lekaiameei kemen emotera.

Jaungoikoak Iñigo'ren otoitzak entzun ebazan...

Erru andiena eukanak azkenean, bere gaiztakeria ezagutu eban, eta Iñigo'ren aurrean belaunikaturik, par-kamena eskatu, eta andik aurrera Loiola'koari bere limos-naz lagundu eutsan.

GOIKOETXEA'tar IÑAKI. S. J.

### IZENA DA ARGITZEA

"Izena daben guztiak izatea bere badabe" Izena eta Izana. Aundiak eta txikiak iñoiz argiro, izena ezarri izan ba-yake... agertu da aren sena.

Sorraldiko benetako unea ura izan zan bai, izantzadunei aal zuanak ezarri eutsoenean

izena, esanik onela: egurra, zura, arria, astoa, mandoa, euria, zaldia, izotza, edurra... bataiatuak gelditu zirean, argituz gizonaren jakintzapena.

iZenbat gauza oraindik ez dira jaio bakarrik iñork ezin izendatu edota izendatu ez ditualako! Askok ta asko daurkikeguz ordea gaiki izantzarik izan-ezarren

norbaitek oldozbidez asmatzean egokiro izentatu zitualako.

Beste batzu or egunen batean iñolako gomutapenik ez-arren illunpetik argira ekarritako liburu zarren baten orrialdetan berbiztuak izango dira beren deiturazko sointze, agerpenean... Aldigune labur ala luzerako?

MUNIATEGI'tar SABIN

## AUR-EZIKETA (15)

### JUANTXO-TXIKI MAITE IZAN

—Baiña, zuk uste dozu guk gure umeak ez ditugula maite, ala zer? Maite izateko? Ori be esan egin bear da, gero...

—Bai, ori be esan. Izan be maitetzeko era asko dagoz...

—Eta...?

—Tximiñoak be maite dituela euren umeak...

—Txarto eta dago ori...?

—Maitearen maitez, bere umea ito egin ebalax tximiñoak. Ez zara tximiño izango...!

\* \* \*

*Gauza guztiak lez,* maitasunak be, bere neurriak bear dauz. Neurriak ez badozu, zeure Juantxo-txiki ito egin leikezu.

—Baiña, neurriak izan leike maitasunak, ala...?

—Maitasunean bertan ez bada, maitatzeko eran eta moduan... Geiegizkorik badago...

—Zelan izan leiteke geiegizkorik gure umienganako maitasunean...?

—Maitasunaren agerpena bear dau lakoa bada, orduan ez da geiegizkorik izango maitasunean; agerpen ori, alan ez bada, orduan okerrak ekarri leikez gure umetxoari. Bere amak ito eban tximiño-txikia esku artean, eta maite ebalako ito be. Maitasun agerpena ez zan ona izan.

Besarkada maitasunaren agerpen bat da: agerbide on bat. Baiña, geiegirik gabe, esku-artearen itoko dozu bestela Juantxo-txiki tximiñoak bere kumea ito eban antzera.

\* \* \*

*Semea maitatzea* bere onaren billa ibiltea da. Baiña, bere ona ez da zure ona izaten zenbaitzuetan. Bere onaren billa ibilli bearrean, tarteka zeure lasaitasuna, zeure atsegiña, zeure arrokeria billatzen dozu...

Zeure norberekoikeria eta egoismoa ez da neurri egokia Juantxo-txiki maitatzean; bere ona da neurri egokia zuretzat... Juantxo-txiki maitatzea ez da zeure burua maitatzearekin amaitzen. Juantxo-txikiren maitasuna aitzaki dozula, ez ibilli zeure onaren billa. Bere on utsa, orra or zeure elburua. Interesik gabe. Utsik. Zeure ondorenari begiratu barik.

\* \* \*

*Era orretara* maitatu bear dozu Juantxo-txiki. Orrean irabaziko dozu bere biotza. Bestela, ez da erreza izango. Biotza eta uste osoa irabazitakoan, orduantxe egongo da Juantxo-txiki pozik zeure menpean. Pozik egon be zeure aginduak pozik eta alaitsu betez. Zeure atsegiñerako eta bere onerako izango da.

\* \* \*

*Begirunea eta errespetoa* izan bear dautsozu maitasunarekin batera. Juantxo txikia izan arren, nortasuna dauko, persona bada eta orregaitik errespetoa eta begirunea bear jako.

Bere buruaren jabegai da eta askatasunerako egiña. Bere eskubide orreintzat izan egizu begirune aundia. Ez jo. Ez beeratu. Ez zapaldu... Maitasuna eta begirunea, erabili bearko dozuz zure eta Juantxo-txikiren arteko artu-emonetan.

# Bizkaia beti



Gure erriaren aurrerapenagaitik.  
Milla urtekoa eta gaurkoa dan gure kulturagaitik.  
Gure erritarren ametsakaitik, bizkaitarrentzat onena dan guztiagaitik.  
Gaur, atzo eta gero Bizkaia.

## Bizkaia beti.

**BIZKAIKO**  
AURREZKI KUTXA



**CAJA DE AHORROS**  
**VIZCAINA**